

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Behin-behineko onespena ematea zerga ordenantzaren aldaketari

Udal honek, 2020ko martxoaren 26an egindako ohiko bilkuran, behin-behineko onespena eman zion zerbitzu publikoak eskaintzearen eta administrazio jarduerak egitearen tasak arautzen dituen zerga ordenantzaren 2020/2021eko ikasturterako udal musika eskolaren zerbitzuaren tasari buruzko c) epigrafea aldatzeari.

Bat etorri Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoarekin, espediente hau jendaurrean jartzen da hogeita hamar egun balioudenez iragarki taulan eta ALHAOn. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte. Dena den, kontuan hartu beharko da martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak xedatutakoa. Errege dekretu hori sektore publikoko erakundeen prozedurak izapidetzeko terminoak bertan behera uzten eta epeak eteten dituen martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak aldatu zituen. Epeak berriz ere kontatzen hasiko dira errege dekretuak edo, hala badagokio, haren luzapenek indarra galtzen dutenean.

Jendaurreko epea amaitutakoan, udalbatzak behin betiko erabakia onetsiko du. Horretarako, aldeztu aurretik, aurkez litezkeen erreklamazioak ebatziko ditu eta behin-behineko erabakiaren gai den c) epigrafearen (2020/2021eko ikasturterako udal musika eskolaren zerbitzuaren tasa) behin betiko testua onetsiko du. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko erabaki hori behin betiko bihurtuko da.

Agurain, 2020ko apirilaren 29a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES